

# *Jende izena pluralean erabiltzeaz*

ESTIBALITZ MONTOYA\*

## SARRERA

Ipar Euskal Herriko euskara Hego Euskal Herriko euskaratik banatzen duten ezaugarrien artean, badira erdararen eraginaren emaitza izan daitezkeenak. Hau da, batean eta bestean erdara desberdina izateak sortuak. Frantsesa eta gaztelaniaren eragina lexikoan ikusten da nabarmenen, nahiz eta hizkuntzaren maila guztietan ager daitezkeen honen aztarnak. Ez da nire asmoa ezaugarri guzti hauek hemen azaltzea (Zuazo, 1999; Montoya, 2004), baina adibide batzuk aipatzearen:

- **Hitz hasierako txetxekariak**

Dakigunez, euskal hitzetan, hasierako txetxekari frikaria ohikoa da Ipar Euskal Herrian, nafar-lapurteraz<sup>1</sup> batez ere (*xori, xapel, xoko...*). Hego Euskal Herri gehienez, berriz, txetxekari afrikatua nagusia da (*txori, txapel, txoko*).

Desberdintasun hau, erderen eraginez, handituz doa. Izan ere, hasierako *tx-* kontsonantea gero eta ugariagoa da Hego Euskal Herri osoan, mailegu berriak gaztelaniatik hartzen direlako:

<i>txubaskero</i>	<i>txorrada</i>
<i>txankleta</i>	<i>txatarra</i>
<i>txutxeria</i>	<i>txabola</i>
<i>txulo</i>	<i>txupa-txus</i>
<i>txikle</i>	<i>txintxeta</i>

\* Euskal Filologian Doktorea, CNRS-eko ikertzailea.

Eskerrak eman nahi dizkiet Irantzu Epelderi, artikulua idazteko eskainitako informazioagatik eta Beñat Oihartzabali, egindako oharrengatik. Patxi Salaberriri ere egindako zuzenketak eskertzen dizkiot.

<sup>1</sup> Zuazoren (2003) euskalkien sailkapena izango dut oinarri.

Ipar Euskal Herrian, berriz, frantseseko maileguetan jatorrizko txetxekari frikaria gorde da:

<i>xato</i>	<i>xarpanter</i>
<i>xantza</i>	<i>xomaž</i>
<i>xerka</i>	<i>xef</i>
<i>xifon</i>	<i>xarma</i>

Gertakari hau argiago erakusteko, har ditzagun gaztelaniaz eta frantsesez diren hitzak eta hauek Hego Euskal Herrian eta Ipar Euskal Herrian, hurrenez hurren, izan duten emaitza (hitz batzuk Epelde, 2004 lanetik hartuak dira):

Hego EH	Ipar EH
<i>txeke</i> (“cheque”)	<i>xeka</i> (“chèque”)
<i>txokolate</i> (“chocolate”)	<i>xokolet</i> (“chocolat”)
<i>tximinea</i> (“chimenea”)	<i>ximinia</i> (“cheminée”)
<i>txarkuteria</i> (“charcutería”)	<i>xarkuteria</i> (“charcuterie”)
<i>txalet</i> (“chalé”)	<i>xalet</i> (“chalet”)
<i>txofer</i> (“chófer”)	<i>xofur</i> (“chauffeur”)
<i>txanpinoi</i> (“champiñón”)	<i>xanpiñon</i> (“champignon”)

Ikus daitekeenez, bakoitzak, ondoan duen erderari jarraituz, maileguetako jatorrizko ebakera gorde du.

- **-ca eta -va amaierak erderako maileguetan**

Kontsonantez (edo kontsonantea + *e* mutua) amaitutako frantses mailegu multzo zabal baten gaztelaniako ordainek bokala dute amaieran: adb. *équipe* / *equipo*. Banaketa honek desberdintasunak sortu ditu Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko hizkeren artean. Izan ere, determinatzailea eranstea, *-Ca* tankerako emaitzak dauzkagu Ipar Euskal Herri osoan (*telefona*, fr. téléphone; *mustika*, fr. moustique; *diferenta*, fr. différent; *turisma*, fr. tourisme; *pasaporta*, fr. passeport; *kilometra*, fr. kilomètre) eta *-Va* tankerakoak, berriz, Hego Euskal Herrian (*telefonoa*, gazt. teléfono; *moskitoa*, gazt. mosquito; *diferentea*, gazt. diferente, *turismoa*, gazt. turismo, *pasaportea*; gazt. pasaporte; *kilometroa*, gazt. kilómetro).

- **Morfosintaxiaren mailako interferentziak**

Hego Euskal Herrian gaztelaniatik zuzen-zuzenean, inolako egokitzerik gabe, hartutako esapideak entzun daitezke: *aunke sea* “behintzat”, *asi ke / o sea ke* “beraz”, *eske* “bada...”, *porke* (“-(e)lako”), *segun* “X zer/nor/noiz/zenbat... -(e)n”.

Ipar Euskal Herrian ere, antzeko gertaerak aurki daitezke, baina han eragina frantsesetik dator: *me* (<fr. mais) juntagailua, *mem* (<fr. même) “baita ere”, *parske*<sup>2</sup> (<fr. parce que) zergatizkoa, *ankas(ka)* (<fr. en cas) baldintzazko esapidea.

<sup>2</sup> Maileguetan, testuaren irakurketa erraztearren, ez ditut transkribapen fonetikoak emango. Oro har, erderetako soinuak gorde egiten dira euskarara sartzean (frantseseko dardarkari ubularea, frikari ahostunak, bokal sudurkariak, gaztelaniako igurzkarri belare ahoskabea...). Frantseseko *v* (ezpain-hortzetako frikari ahostuna) grafia gorde dogu frantseseko maileguetan, *b* erabiltzea baino egokiagoztat jotzen dudalako eta irakurketa zailtzen ez duelako.

Eta *afèn* (< fr. enfin) “tira!”, *vuala* (< fr. voilà) “horra”, *apepres* (< fr. à peu près) “gutxi gorabehera”, *bienzür* (< fr. bien sûr) “noski”, edo *por ejemplo* (< gazt. por ejemplo) “adibidez”, *keba* (< gazt. qué va) “bai zera!” bezalako esapideak arruntak dira Ipar Euskal Herrian eta Hego Euskal Herrian, hurrenez hurren.

• **Lexikoko maileguak**

Maileguen azterketak argi erakusten du etengabe sartzen ari diren item lexiko berri asko Ipar Euskal Herrian frantsesetik hartzen direla, eta Hego Euskal Herrian, aldiz, gaztelaniatik (aipatzen diren hitz batzuk, Epelde, 2004 lanetik hartuak dira):

**Frantseseoak**

*jurnal* (< “journala”)  
*kaier* (< “cahier”)  
*glaza* (< “glace”)  
*kuafur* (< “coiffeur”)  
*vitrina* (< “vitrine”)  
*etaia* (< “étage”)  
*otorruta* (< “autoroute”)  
*inpos* (< “impôt”)  
*magasin* (< “magasin”)  
*anvelopa* (< “enveloppe”)  
*promenatu* (< “promener”)  
*meria* (< “mairie”)  
*jandarma* (< “gendarme”)

**Gaztelaniakoak**

*periodiko* (< “periódico”)  
*kuaderno* (< “cuaderno”)  
*elau* (< “helado”)  
*pelukera* (< “peluquera”)  
*eskaparate* (< “escaparate”)  
*pisu* (< “piso”)  
*autopista* (< “autopista”)  
*inpuesto* (< “impuesto”)  
*tienda* (< “tienda”)  
*sobre* (< “sobre”)  
*paseatu* (< “pasar”)  
*aiuntamiento* (< “ayuntamiento”)  
*polizia* (< “policía”)

Aipatutako ezaugarri hauek guztiek erakusten dute Ipar Euskal Herriko euskara eta Hego Euskal Herriko euskararen arteko desberdintasun askotan frantsesaren eta gaztelaniaren eraginak, hurrenez hurren, duen garrantzia.

Bada Ipar Euskal Herriko euskara eta Hego Euskal Herrikoa banatzen duen beste ezaugarri bat, erdaren eraginaz sortua izan daitekeena, baina nire ustez, azterketa sakonagoa behar duena: *jende* izenaren erabilera. Azterketa honi ekingo diot ondorengo orrietan.

JENDE IZENAREN ERABILERA IPAR ETA HEGO EUSKAL HERRIAN

*Jende* izena Hego Euskal Herriko hizkera gehienetan singularrean baino ez da erabiltzen (adibideak *EHHA*<sup>3</sup>tik hartuak dira):

- “jentiek jan da asko itte euan” (Ibarruri, 27)<sup>4</sup>
- “jendia ixilik eoten da” (Oartzun, 82)
- “oain emengo jendia joaten da baztar guzita” (Etxaleku, 97)

<sup>3</sup> *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia* (Euskaltzaindia: 1999). Artikulu honetan agertzen diren adibideak liburutik, eta ez CDtatik, aterata daude.

<sup>4</sup> Adibideetan jatorrizko testuetako grafiak gorde ditut, eta horrexegatik, batzuetan *jende*, eta beste batzuetan *jende* aurkituko dugu.

Hala ere, Baztanen (“*iende elegante batzuekin bizi omen da*”, N’Diaye, 1970:126; “*emen tortzen dire Baztan guziko jendeak*”, Etxebarria & Etxebarria, 1991: 87), Mezkititzen (“*ala daude yendiak*”, ESHA, 109) eta Artzibarren (“*bildu zirén ingúru a(i)étako yéndeak*”, Arrietan, EAEL, 215), pluralean erabiltzeko aukera ezaguna da. Caminok ere Aezkoan topatu du:

Izen bat baino gehiago singularrean edo pluralean erabil daiteke hala ere. Ipar Euskal Herrian *jende* hitza pluralean erabiltzen da. Aezkoan badugu adibide zenbait *jende* hitza pluralean erabilirik. (1997: 370).

Zaraitzueraz ere, badirudi ezaguna dela (Artola, 2003: 408): “*eta jénde gázte kuek, ikási...eztié ikàsi [bizimodu] gáxtoa*”.

Ipar Euskal Herrian, berriz, *jende* izena pluralean erabiltzea erabat arrunta da. Ikus ditzagun, berriro ere, ESHAtik ateratako adibide batzuk:

“jendek gaizki hartu zuten” (Bidarra, 137)  
 “enkhela re errain duu, ta ba jendeendako” (Armendaritze, 150)  
 “hengo jendeek hartzen zituzten bazkaz ardiak” (Garruze, 160)  
 “jendeak pasatzen zirelarik” (Bastida, 165)  
 “jente athüngabiak deitzen tüzü” (Larraine, 174)

Ikus dezakegunez, nafar-lapurteraz eta zubereraz *jende* izena pluralean erabiltzeko aukera ohikoa da. Aukera hori, dena den, Ipar Euskal Herrian ez da bakarra, izan ere, singularrean ere erabil daiteke. Nik Saran, Zugarramurdi eta Urdazubin entzun dut. Arrangoitzen ere, honako adibide hauek jaso zituzten ESHAra: “*jende berria jin baita*”, “*jendia aspertu da*” (123). Baita Alduden ere: “*Bainan ikustekoa da nola tronpatzen duten jendia*” (136). EAELn adibide gehiago topa ditzakegu, baita ekialderagoko hizkeretan ere:

“urrúndik eé yéndea etòrtzen dá” (Zuraide, 233)  
 “yendia pasatzen zen” (Urketa, 250)  
 “yendea yoiten bita” (Arruta, Amikuze, 264)  
 “zènte fededünakua” (Zuhatzola-Eihera, 281)

Honako adibide hauek Baigorriin jasoak dira:

“eta behar baitzen bildu jendiai satifamendu eman” (Haritxelhar, 1963: 55)  
 “jendeak du kuraia berriztatu” (Etxebarria, 1994: 54)

Landhek (1926: 486) *jende* hitzak dituen adierak eta erabilerak aipatzen ditu bere euskara-frantsesa hiztegian:

[...] – 3<sup>o</sup> homme, créature humaine, individu. *Zortzi presuna hetarik bethe izan zen mundu guztia jendez*, de ces huit personnes, le monde entier se remplit d’hommes. SYN.: **gizon**; – 4<sup>o</sup> du monde, un certain nombre de personnes. *Jende guti zen Elizan*, il y avait peu de monde à l’Église; – 5<sup>o</sup> une certaine catégorie de gens. *Jende xeheak*, les petites gens, le bas peuple; – 6<sup>o</sup> les gens, les hommes en gén., le monde, *Jendek diotenez*, d’après ce que l’on dit; [...]

Beraz, esan dezakegu *jende* hitza pluralean erabiltzea Ipar Euskal Herrian erabat arrunta dela, baina singularrean ere erabili daitekeela, eta Hego Euskal Herrian, berriz, ez dela ohikoa nahiz eta Nafarroako zenbait gunetan

ezaguna izan (Baztan, Aezkoa, Zaraitzuera, Artzibarren eta Mezkitzen, behinik behin.)

Orain arte ikusitako adibideetan, *jende* izen zenbakaitz bezala agertu da (N'Diayek Baztanen jasotako adibidea salbu). Ondoren ikusiko ditugun adibideetan, aldiz, zenbakarria da *jendea*, *pertsona* edo *lagun* hitzen sinonimoa, hain zuzen:

- “híru ehún yénde baziin órdian” (Amorotze-Zokotze, *EAEL*: 265)
- “ehün eta ber(r)ogéita hámar e... žènte báizik hebín” (Arrokiga, *EAEL*: 278)
- “mila bat žente” (Eskiula, *EAEL*: 283)
- “bena jende batzui hanitz pena [...]” (Irisarri, *EHHA*: 144)
- “errateute bi iru mila jendeak ibiltzen diela” (Montoya, 2004: 146)
- “bi mila jende” (Duhau, 2003: 132)
- “Ameriketarat yoan dien yende batzu” (Baigorri; Pagola, 1984: 39)
- “herriak hiruehün eta lautan hogeitabost jente badü” (Casenave-Harigile, 2000: 25)

Adibideak nahi beste aurki daitezke Ipar Euskal Herriko hizkera guztietan. Honek ez du esan nahi hizkera hauetan *pertsona* hitza (edo hitzaren aldaera) ezezaguna denik:

- “Zortzi presuna hetarik bethe izan zen mundu guztia jendez” (Lhande, 1926:486)
- “izan da memento’at nun mainaan itzulian bazien amaortz presuna” (Epelde, 2004: 199).

Aztertu ditudan Hego Euskal Herriko hizkeretan, ez dut *jendea* adiera honekin aurkitu, eta badirudi hauetan *pertsona* dela aukera bakarra. Lehen aipatu ditugun Nafarroako Mezkitz eta Artzibarren ez dut *jendea* “zenbakarri” adierarekin aurkitu. Caminok (1997), ere ez digu adibiderik ematen. Baztanek, beste hainbat kasutan bezala, honetan ere Ipar Euskal Herrirantz egingo luke (*iende elegante batzuekin*, N'Diaye, 1970: 126), izan ere, han *pertsonaren* sinonimoa izan daiteke *jendea*. Zaraitzuko Jaurrietan jasotako testu batean ere adibide bat aurkitu dut: “*bi mila jende baño*” (Etxebarria & Etxebarria, 1991: 129). Dena dela, ezaugarri honen banaketa hobeto zehazteko, argibide gehiago beharko genuke.

## JENDE HITZAREN ERABILERA LITERATUR TRADIZIOAN

Gaur egun *jendea* pluralean erabiltzea Hego Euskal Herrian arrunta ez den arren, erabilera hau orokorragoa izan da urteetan zehar. *Orotariko Euskal Hiztegian* (OHE), honakoa agertzen da *jende* hitzaren sarreran:

General en todas las épocas y dialectos. Aunque hay testimonios tanto en plural como en singular en todas las épocas y dialectos, los del primer tipo abundan más en textos septentrionales, y dentro de los meridionales son más numerosos cuanto más retrocedemos en el tiempo. (X: 209).

Sarrera honetan agertzen diren adibideak aztertuta, ikus dezakegu Kardaberaz (XVIII, hernaniarra) edo Mogel (XVIII-XIX, eibartarra) bezalako idazleek *jendea* pluralean erabiltzeko aukera ezagutzen zutela: *jende onak: au zer*

*dugu?* (Kardaberaz, *Eusqueraren Berri Onac*: 42); *ikusten ditubez [...] jente nasaijetan gauza txarrak* (Mogel, *Confesino Ona*: 149).

Arestian esan bezala, *jendea* zenbakarria balitz bezala ere erabil daiteke gaur egun Ipar Euskal Herriko hizkeretan. Erabilera hau ez da berria, XVII. mendetik aurrera adibideak aurki ditzakegulako (OEH, x: 209):

“mila jende burdiñetan” (Gasteluzar)

“hirur jenderen izenak düüt galtho” (Eguiateguy)

“etxe bakarretik hiru, lau jendetaraino eraman zituena” (Hiriart-Urruti)

Erabilera hau erakusten duten idazle guztiak Ipar Euskal Herrikoak dira, salbuespen batekin: Mendiburu oiartzuarra. XVIII. mendeko idazle honek ondorengoa idatzi zuen: *nork daki beste zenbat mil jenderekin* (OEH, x: 209).

Hau da, literatur tradizioan agertzen diren adibideak aztertuta, esan daiteke *jendea* pluralean erabiltzea Ipar Euskal Herrian Hego Euskal Herrian baino ohikoagoa izan dela, eta banaketa hau are nabarmenagoa dela *jende* hitzak *pertsonaren* adiera duenean, zenbakarria denean, alegia.

### JENDE HITZAREN ERABILERA GAZTELANIAZ ETA FRANTSESEZ

Lehenengo atalean ikusi dugu badirela, erdaren eraginez, Ipar Euskal Herriko euskara Hego Euskal Herriko euskaratik banatzen dituzten ezaugarri batzuk. *Jende* izena erabiltzeko joera nagusiak Ipar Euskal Herriko hizkeretan eta Hego Euskal Herrikoetan zeintzuk diren ikusita, pentsa liteke gaztelaniaz *gente* singularrean erabiltzeak eta frantsesez, berriz, *gens* plurala izateak banaketa honetan eragina izan dezakeela. Baina *gente* eta *gens* izenek gaztelaniaz eta frantsesez dituzten erabilerak sakonago aztertuz gero, ikusiko dugu eragin hau asko zehaztu behar dela.

Gaztelaniari dagokionez, *gente* izenak gaur egun duen erabilera hobeto ezagutzeko, Molinerren (1998) hiztegirako jo dut, eta honako hau aurkitu dut *gente* sarreran:

Se emplea como colectivo partitivo y como genérico en singular: “Los domingos hay gente en todas partes. La gente se aglomeraba delante de las pizarras”.

(pl.;lit.) Gente de todas [o de distintas] clases: “Las gentes le seguían para escuchar sus predicaciones”. (I: 1388-1389)

Beraz, gaztelaniaz ere *gente* hitza singularrean eta pluralean erabil daiteke, baina plurala literaturan baizik ez da ohikoa. Badirudi, hala ere, gaztelaniaren historian zehar plurala erabiltzeko joera askoz ere arruntagoa izan dela. Corominas eta Pascualek (1980) argi azaltzen digute historian zehar singularra eta pluralaren erabilera zein izan den:

En el período arcaico predomina el uso plural (*las yentes*), al fin de la Edad Media el singular gana terreno y el plural va quedando relegado después al estilo eclesiástico [...] hasta tal punto de que en el s. XIX y hoy en día sólo lo emplean los escritores afrancesados [...]. (III: 144)

Pluralaren erabilera zahar honen aztarna, *don de gentes* esapidea dauka-gu, gaur egungo gaztelaniaz askotan erabiltzen dena. Bestela, aurreko aipamenean ikusi dugun bezala, pluralaren erabilera ez da gaztelaniaz batere arrunta, hizkera jasoan ez bada behintzat. Corominas eta Pascualek, gaine-

ra, aipatzen dute plurala frantses kutsua duten idazleek baino ez dutela erabiltzen.

Izan ere, frantsesez *gens* izena normalean pluralean erabiltzen da. Dena dela, honetan ere ñabardura batzuk egin behar dira. Frantsesez *gens* hitzak duen erabilera hobeto ezagutzeko, Roberten (1981) hiztegiara jo dut:

*Gens* ne se dit plus en parlant d'un nombre déterminé de personnes. On a dit *dix, vingt...gens* jusqu'au XVIII<sup>e</sup>s. L'emploi de *cent gens, mille gens*, désignant un nombre indéterminé, est fréquent dans la langue classique [...]. On emploie plutôt de nos jours: *une douzaine, une centaine... de gens*. Avec certains adjectifs, on dit fort bien *trois pauvres gens, quatre honnêtes gens...* (III: 260)

Honen arabera, beraz, gaur egungo frantsesez *gens* zenbakarria ez da erabiltzen, zenbait adjektiborekin ez bada. XVIII. mendera arte, berriz, erabilera hau arrunta izan da. *Gens* hitzaren singularra, *gent*, ez da gaur egungo frantsesean batere arrunta, esanahi zehatza du eta literatur hizkeran baino ez da erabiltzen (*gent* sarrera; Robert, 1981):

Vieux: Nation, peuple. Vieilli ou littéraire (et souvent ironique): Race. (III: 262).

*Gente* eta *gens* hitzek gaztelaniaz eta frantsesez (izan) duten erabilera ikusita, laburpen gisa honakoa esan dezakegu: gaztelaniaz *gente* hitza pluralean erabiltzea XVIII. mendera arte ohikoa izan da, baina geroztik literatur hizkeran baizik ez dugu aurkituko, eta ez sarritan. *Gente* hitzak ez du historian zehar zenbakarri adiera izan, eta gaur egun ere horrela da (*persona* erabiltzen da adiera horretarako). Frantsesez, berriz, *gens* pluralean erabili eta erabiltzen da, singularrak oso esanahi eta erabilera markatua duela. Zenbakarria izateak, bestalde, XVIII. mendera arte arrunta izan den arren, gaur egun kutsu zaharkitua, literarioa du.

Izen hau plurala izatea ez da euskara inguratzen duten hizkuntzen bereizgarri. Ingelesez ere, adibidez, *people* izena plurala da, eta gainera, Ipar Euskal Herriko hizkeretan *jende* hitza bezala, zenbakarria ere izan daiteke<sup>5</sup>: “*People have the power*”, “*the journalist interviewed ten people*”. *Person* hitza ere erabiltzen da, pertsona bakarra denean: “*There is a person who can help you*”; izen hau, Britain Haundiko ingelesean behintzat, ezin da pluralean erabili: \**two persons*.

## ONDORIOA

Beraz, Ipar Euskal Herrian *jende* hitza pluralean erabiltzearen atzetik frantsesaren eragina izan daitekeela diogunean, ñabardurak egin behar dira. Egia da gaur egun *jendea* pluralean gehienbat Ipar Euskal Herrian erabiltzen dela, eta frantsesez *gens* plurala dela. Hego Euskal Herrian, berriz, noizbait arruntagoa izan arren, gaur ez da ohikoa, eta gaztelaniaz ere antzeko bilakabidea izan du *gente* hitzaren erabilerak. Honek guztiak iradokitzen du noizbait *jendea* pluralean erabiltzea Euskal Herri osoan ezaguna izan dela, Hego

<sup>5</sup> Eskerrak eman nahi dizkiot Michael Buckley lagun irlandarrari nire zalantzak eta galderak argitzearren.

Euskal Herrian pluralaren aukera galduz joan zela (gaztelaniaz ere), baina Ipar Euskal Herrian, ordea, erabilera hori mantendu egin dela, frantsesaren eraginaren laguntzaz seguru asko.

*Jende* izena zenbakarria izateak, bestalde, azalpen desberdina beharko luke, izan ere, frantsesez, nahiz eta XVIII. mendera arte ohikoa izan, gaur egun *gens* izena zenbakarria ez delako (zenbait adjektiborekin ez bada) eta Ipar Euskal Herriko hizkeretan erabat arrunta delako. Erabilera hori, literatur tradizioak eskaintzen dituen datuen arabera, behintzat, Ipar Euskal Herrian izan da ohikoa, eta ezin dugu ahaztu gaztelaniaz *gente* ez dela zenbakarria izan. Hortaz, zenbakarria izatean ere, ondoko erdarak bere eragina izan zezakeen. Datu hauekin, esan daitekeen bakarra da Ipar Euskal Herrian, Hego Euskal Herrian ez bezala, *jendeak* zenbatu daitezkeela, eta frantsesez, noizbait ezaguna izan den arren, gaur egun ez dela ohikoa eta han, *personne*-ak zenbatzen direla.

## BIBLIOGRAFIA

- ARTOLA, K., 2003, "Zaraitzuera aztertzeko ekarpen berriak (4-Otsagi: esaldiak)", *FLV*, 35 (94 zb.), 381-425.
- AZKUE, R. M., 1905-1906, *Diccionario Vasco-Español-Francés*, 2, arg. La Gran Enciclopedia Vasca (LGEV), Bilbo [1969].
- CAMINO, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- CASENAVE-HARIGILE, J., 2000, *Xiberuan euskaraz: Méthode de Basque souletin*, Sü Azia, Maule.
- COROMINAS, J. & PASCUAL, J. A., 1980, *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*, Gredos, Madril.
- COYOS, J. B., 1999, *Le parler souletin des Arbailles. Un approche de l'ergativité*, L'Harmattan, Paris.
- DAVANT, J. L., 1996, "Euskalkien eta euskara batuaren arteko harremana nolakoa den Iparraldean", *Euskera*, 41: 2, 531-540.
- DUHAU, H., 1993, *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara*, Alinea, Donibane-Lohizune.
- , 2003, *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara. "Birdena" edo Bigarren partea*, Akoka, Donibane-Lohizune.
- EPELDE, I., 2004, *Larresoroko euskara*, EHU-ko Doktorego Tesia. Argitaratu gabea.
- ETXEBARRIA, J. M., 1994, "Las grabaciones de Viena en euskera. Bajo navarro occidental y Bajo navarro oriental", *Mundaiz*, 47, 45-75.
- ETXEBARRIA, J. M & ETXEBARRIA, J. M., 1991, *Euskalki guztien etno-testuak*, Labayru ikastegia, Bilbo.
- EUSKAL HERRIKO ATLAS ETNOLINGUISTIKOA, 1983-1990, Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.
- EUSKALTZAINDIA, 1999, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Ohiko euskal mintzamoldeen Antologia* ([EHHA], liburua eta 4 CD), Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1987, *Orotariko Euskal Hiztegia* ([OEH]), Euskaltzaindia, Bilbo.
- HAASE, M., 1990, "Erdal hitzen mailegatzea Iparraldeko euskaraz", *Euskera*, 35, 405-415.
- HARITXELHAR, J., 1963, "Textes folkloriques de la vallée de Baigorri", in *Actas del tercer congreso internacional de estudios pirenaicos*, Girona, 1958, Instituto de Estudios Pirenaicos & CSIC, 51-73.
- IBARRA, O., 1995, *Ultzamako Hizkera: Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- LAFITTE, P., 1962, (2. arg.), *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*, Amis du Musée Basque et Ikas, Baiona.
- LARRAÑAGA, I., 1989, "Euskara Ipar Euskal Herrian", *Jakin*, 54 zb., 121-147.



- LHANDE, P., 1926, *Dictionnaire basque-français (dialectes labourdin, bas-navarrais et souletin)*, Paris.
- MOLINER, M., 1998 (2. arg.), *Diccionario de uso del español*, Gredos, Madrid.
- MONTOYA, E., 2004, *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- N'DIAYE, G., 1970, *Structure du dialecte basque de Maya*, Mouton, The Hague-Paris.
- PAGOLA, R. M., 1984, *Euskalkiz euskalki*, Eusko Jaurlaritzza.
- ROBERT, L., 1981, *Dictionnaire alphabétique et analogique de la Langue Française* (arg. zuzendua), Le Robert, Paris.
- SALABERRI, P., 2000, "Luzaideko euskara, Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan", in K. ZUAZO (arg.), *Dialektologia gaiak*, 223-259, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- SARASOLA, I., 1997, *Euskara batuaren ajeak*, Alberdania, Donostia.
- ZUAZO, K., 1998, "Euskalkiak, gaur", *FLV*, 30 (78 zb.), 191-233.
- , 1999, "Baigorriko euskara kokatzeari buruz", *Lapurdum*, 4, 247-277.
- , 2003, *Euskalkiak, herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.

### LABURPENEA

*Jende* hitzaren erabilera desberdina da Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko hizkeretan. Izan ere, lehenengoetan, plurala da nagusi, eta besteetan, berriz, singularra da ohiko aukera. Erabilera desberdin honen atzetik frantse-saren eta gaztelaniaren eragina izan daitekeelakoan, hizkuntza hauetako *gens* eta *gente* hitzak nola erabili eta erabiltzen diren aztertu da, euskarazko *jende* hitzaren erabilerekin alderatuz. Azterketa honen emaitzek hiru hizkuntzen arteko loturak eta deberdintasunak erakusten dituzte, frantsesak eta gaztelaniak *jende* hitzaren erabileretan izan dezaketan eragina zehaztuz.

### RESUMEN

El uso de la palabra *jende* es diferente en las hablas de ambos lados de la frontera vasca. En las del norte, predomina el uso del término en plural, y en las del sur, por el contrario, la opción más frecuente es la del singular. Tratando de mostrar la influencia que el francés y el castellano pueden tener en esta divergencia, se ha estudiado el uso que han tenido y tienen las palabras *gens* y *gente*, comparándolo con el de la palabra vasca *jende*. Los resultados evidencian las diferencias y convergencias que hay entre estas tres lenguas, detallando la posible influencia del castellano y francés en los diversos usos de *jende*.

### RÉSUMÉ

L'utilisation du mot *jende* est différent dans les langues des deux côtés de la frontière basque. Au nord, l'utilisation du mot au pluriel est plus fréquente, et au sud, au contraire, l'option la plus fréquente est celle du singulier. En essayant de montrer l'influence que le français et l'espagnol peuvent avoir dans cette divergence, on a étudié l'utilisation qu'ont eu et ont les mots *gens* et *gente*, en le comparant avec le mot basque *jende*. Les résultats démontrent les différences et les convergences qu'il y a entre ces trois langues, en détaillant l'éventuelle influence de l'espagnol et du français dans les différents usages de *jende*.

### ABSTRACT

The use of the word *jende* differs in the speech from the two sides of the Basque border. In the north, the word is mainly used in plural, while in the south, it is more often singular. In an attempt at demonstrating the influence of French and Castilian on this divergence, the use which the words *gens*

and *gente* have and have had is studied in comparison with the Basque word *jende*. The results reveal the differences and similarities between these three languages, describing the possible influence of Castilian and French on the different uses of *jende*.

FLV-EN AZKEN ALEETAKO AURKIBIDEAK  
ÍNDICES DE LOS ÚLTIMOS NÚMEROS DE FLV  
INDEX DES DERNIERS NUMÉROS DE FLV  
INDEXES OF THE LAST ISSUES OF FLV

2003, 92. Vahan SARKISIAN. La formación del infinitivo en el euskera (reconstrucción interna). Victor HIDALGO EIZAGIRRE. *Zein* (eta *Bait-*) erlatiboak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (III). Iker Joseba LAKA GUENAGA. La forma pasiva de \**Ditza* + (U) + N > *Ditzan*. Koldo ARTOLA. Zaraitzuera aztertzeako ekarpen berriak. (2 – Eaurta: jarraipena). Mikel OLANO IRURTIA. Pagoaren izenaz eta izanaz, palinologiaren argitan. Orreaga IBARRA. Erroibar eta Esteribarko oikoni-moak (II). Rufino GÓMEZ VILLAR. Toponimia vasca en la comarca de Belorado (Burgos). Fernando MIKELARENA PEÑA. La evolución demográfica de la población vascoparlante en Navarra entre 1553 y 1936.

2003, 93. Koldo ARTOLA. Zaraitzuera aztertzeako ekarpen berriak. (3 – Eaurta: bukaera). Philippe ETXEGORRI. Jeruntzeko Ûskara. Ekialdeko euskara. Iñaki GAMINDE. Intonazio ereduak Zeanurín. Yuri ZYTSAR. Sobre el origen de ciertos términos somáticos del euskara (cara y otros). Patxi SALABERRI. On hypocoristic formation in Basque. Jabier SAINZ PEZONAGA. Antroponimia medieval euskérica en la Ribera tudelana. Mary C. IRIBARREN. Vocablos de tipología vasca en el italo-romance. Otra hipótesis de contacto de lenguas

2003, 94. Jose Mari SATRUSTEGI. Hitzaren artelana. Koldo ARTOLA. Zaraitzuera aztertzeako ekarpen berriak. (4 – Otsagi: esaldiak). Iñaki CAMINO. Hego-nafarreraren egituraz. Fabián GONZÁLEZ BACHILLER. Navarro y riojano *yasa*, vasco *jasa*: ¿paleoeuropeo \**isa* / \**aisa*? Pedro DE YRIZAR. Evolución del Euskara. Pedro URIBARRENA / Roberto GONZÁLEZ DE VIÑASPRES. Toponimia en lengua vasca de Ma-rauri (Condado de Treviño). David L. GOLD. We do not know whether Jews in Sefarad 1 spoke or wrote Basque.

2004, 95. Koldo ARTOLA. Zaraitzuera aztertzeako ekarpen berriak (5 – Otsagi: ahozko testuak). Jose Luis ERDOZIA MAULEON / Patxi FLORES LAZKOZ. Lizarragabengoko hizkera. Peio KAMINO KAMINONDO / Patxi SALABERRI ZARATIEGI. Nafarroa Behereko hiru eskutitz. Karnele ROTAETXE AMUSATEGI. -(e)ta enklitikoak saillkapen eskalarrean. Ivan V. ZYTSAR. Sobre el componente vasco del fonosistema español (I). Santiago PÉREZ OROZCO. Sobre la sintaxis del ibérico. Yuri VI. ZYTSAR. Correspondencia Y. Zytsar-L. Michelená.

2004, 96. Koldo ARTOLA. Zaraitzuera aztertzeako ekarpen berriak. (6 – Ezkaroze). Edu ZELAIETA. Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrera (I). Estibalitz MONTROYA. Urdazubi eta Zugarramurdiko euskararen norabidea. Irantz EPELDE. Lapurdiko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz. Izaskun ETXEBESTE / Koro SEGUROLA. *Zuhaitz* eta *Enbor* hitzen adiera. EHHA-n bildutako datuen argitan. Peio KAMINO KAMINONDO / Patxi SALABERRI ZARATIEGI / Juan Jose ZUBIRI LUJANBIO. Luzaideko hizkera adierazkorra. 1. Sakreak. Ricardo URRIZOLA HUALDE. Valdizarbe y el euskara en el siglo XVII. Roberto SERRANO. El caso Ergatibo. Concepto general y tipología, con atención especial a las lenguas kartvélicas y al euskara. Homenaje del Ateneo Navarro/Nafar Ateneoa a Jose Mari Satrustegi, Pamplona/Iruñea, 30 de mayo de 2003.

2004, 97. Koldo ARTOLA. Zaraitzuera aztertzeako ekarpen berriak. (7 – Orontze). Iñaki CAMINO. Nafarroa Behereko euskara. Jose Luis ERDOZIA MAULEON. Irañetako euskara. Iñaki GAMINDE. Tonuak eta etenak Gatikako intonazioan. Patxi SALABERRI ZARATIEGI. Artatzako euskal testua. Transkripzioa eta hizkuntza azterketa. Balbino GARCÍA DE ALBIZU. El catecismo de Artaza. Nueva evidencia del euskera en Améscoa. Xabier KINTANA. Joan Perez Lazarragakoren izkribuaren inguruan. David PETERSON. Primeras referencias a Guipúzcoa.

2005, 98. KOLDO ARTOLA. Zaraitzuera aztertzeako ekarpen berriak (8 – Espartza: taulak/esaldiak). JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON. Sakanerak. VICTOR HIDALGO EIZAGIRRE. Eskuinetiko erlatiboak euskaraz, izen ardatzaren ondoretik (ere) hedatzen direnak (eta V). Ikuspegi orokorra. KARMELE ROTAETXE AMUSATEGI. Gramatikalizazio-prozesu bat: baina enklitikoak. RICARDO URRIZOLA HUALDE. El euskara en la administración navarra a finales del XVIII. Tensa relación entre el Hospital y el Ayuntamiento de Pamplona. ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRES / PEDRO URIBARRENA. Toponimia histórica de Sáseta (Condado de Treviño) (I). SANTIAGO PÉREZ OROZCO. Las consonantes laterales en las lenguas paleohispánicas

2005, 99. KOLDO ARTOLA. Zaraitzuera aztertzeako ekarpen berriak (9 – Espartza: ahozko testuak). IÑAKI CAMINO. Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna. EDU ZELAIETA. Bor-

tzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (II). JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON. Zebait euskal testu Nafarroan XVII.mendeen. MIKEL GORROTXATEGI NIETO. Getxoko etxe izenen sorreraz. ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRES/PEDRO URIBARRENA. Toponimia histórica de Sáseta (Condado de Treviño) (II). PEIO KAMINO KAMINONDO/PATXI SALABERRI ZARATIEGI/JUAN JOSE ZUBIRI LUJANBIO. Goizuetako hizkera adierazkorra: biraok. YURI VL. ZYTSAR. Correspondencia Y. Zytsar - L. Michelena (y III).

2005, 100. FRANZISKO ONDARRA. Bakaikuko euskal hitzak, esaerak etab. IÑAKI CAMINO. Euskal Dialektologia *FLV* aldizkarian. JUAN JOSE ZUBIRI LUJANBIO. Hizkuntzaren jabekuntzaz *Fontes*-en. ROLDÁN JIMENO ARANGUREN. Historia social e institucional de las lenguas (especialmente del euskera) en *Fontes Linguae Vasconum* (1969-2005). PATXI SALABERRI ZARATIEGI. Los trabajos de onomástica en *Fontes Linguae Vasconum*. JEAN-BAPTISTE BATTISTU COYOS. Iragankortasunaren dinamikaz zuberran: kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzen ikerketaren lehen etapa. EMILIO NIETO BALLESTER. Sobre el origen latino-románico de riojano-navarro *yasa* y vasco *jasa*.